

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Leire Olaberria, urrezko txirrindularia

Ikaztegieta herri txikia eta apala da, baina badugu pozik eta harro egoteko motiborik: Leire Olaberria txirrindularia, gure herriaren izena Txinan, Polonian eta beste hainbat tokitan ezagun egin duen neska. Garai batean, atletismoan marka bikainak egin bazituen ere, atletismoa utzi egin behar izan zuen eta pistako txirrindularitzari lotu zitzaion 26 bat urterekin. Eta ordutik hona bere marka guztiak hobetu besterik ez du egin. Irabazitako guztiak aipatzea zaila da, baina azken bi urte hauetan poz handiak eman dizkio Euskal Herriko txirrindularitzari: Beijing-go Joko Olinpikoetan brontzezko domina lortu zuen puntuazio proban, Espainiako erlojupeko proba absolutuan txapeldun 2010ean, aurtengo udan, Mallorkan egindako pistako txapelketetan, 5 urrezko domina eta 2 zilarrezko lortu zituen, eta azkenik, duela hilabete inguru, Polonian jokaturako Europako txapelketetan, urrezko domina lortu zuen, Omnium izeneko lehiaketan (sei proba desberdinez osatua: scratch, 500 m abiaduran irtenda, jazarpena, puntuazioa...)

“*Citius, altius, fortius*” latinezko esamolde bat da eta “azkarrago, altuago, indartsuago” esan nahi du. Hauxe da Joko Olinpikoetako



DANI BLANCO

lema edo goiburua, Aro Modernoko Joko Olinpikoetan, Atenasen 1896an, Pierre de Coubertin baroiak esan zuena. Leirek badi-rudi gogoan hartu duela esamolde hori eta bere buruari ezarri dion apustua horixe dela: beti hobetzen joateko ahaleginak egitea. Eta lortu dituen garaipenak hori baieztatzera datoz.

Gizonezkoetan aipatu, goraiatu eta ahoz aho zabaltzen dira honelako balentriak, baina emakume batek lortzen dituen askoz indar mediatiko eskasagoa izaten dute eta ez dute hainbesteko aipamenik merezi izaten. Hobeto esanda, merezi bai, baina ez zaie hainbesteko meriturik aitortzen. Baina Leire Olaberriak egin dituenak ez dira ahuntzaren gauerdiko ez tula eta nik ahots ozenez goraiatu nahi ditut gure herritarraren garaipen horiek. Ikaztegieta bezalako herri txiki batentzat ohore handia da horrelako kirolari bikain bat edukitzea, munduko onenekin lehiatu eta irabazteko ere kapaz dena.

Osasuna eta zortea izan dezazula, Leire, goi-mailako txirrindulari horien artean lehiatzeko eta garaipen gehiagorik lortzeko. Ea Olentzerok zorte hori eta garaipen batzuk ekartzen dizkizun opari.

Aupa, Leire! ■

Gizonezkoetan aipatu, goraiatu eta ahoz aho zabaltzen dira honelako balentriak, baina emakume batek lortzen dituen askoz indar mediatiko eskasagoa izaten dute eta ez dute hainbesteko aipamenik merezi izaten

TXANDAN

Andoni Mujika



Ezin zaio ukatu betiko ezker abertzaleari, behin eta berriro, motibazio abertzaleak berbizteko eta, neurri batean, biltzeko daukan gaitasuna. Erreformulaziorako talentua du. Gai dira herri honetan historikoki dagoen gogo-nazionalarekin konektatzeko. Mezu garbia darabilte aldarri nagusian: *independentzian*. Hainbesteri, tartean beren lehengusu txikiari ere, hitzez hitz ahoskatzea kostatzen zaion terminoa aieratzen dute ozen. Hitz hori erabiltzeko ez daude koiantura ezberdinen menpe. Komeni den, komeni ez den, korapilo taktikoen gainetik salto egiten dute harro.

Aurrera

Gustatzen zait hori. Nortasun adierazpentzat jasotzen dut nire baitan. Fase berrian sartu da mugimendu abertzalea. Bi kontzeptu ditu oinarritzat: independentzia eta sozialismoa. Lehenaz hitz egin dut gorago. Bigarrena garatzeko eta garai honetara ekartzeko aukera ederra dauka orain. Hau da, sozialismoa, herrigintza eta gizartegintzarekin lotzea. Ezker izaerari adiera ezberdina eta konplexurik gabekoa eskaini diezaiokie ausart eta sortzaile baldin badabil. Merezi du komertzionala ez izatea honetan eta gizartearen ekarpena eta gogoeta jasotzeko mekanismoak asmatzea. Ilusioa ber bi. ■